

Autodeterminazioaren bi muturrak

Euskaldunon Egunkaria, 1997-03-09: 3.

Autodeterminazioa zer den denok dakigu; herriek noiz eta nola duten eskubide hau erakusten duen erregulaketa juridikoa zabaldua dago mundu guztian Oinarrizko Legearen antzera, baina inoiz honek dakarren mezuak Estatuari bere Inperioa ukitzen badio, ezinbestean gertatzen den bezala, bi muturrak lehia bizian daude. Eskerrak gaur nazioarteko kontzientzia asko indartu dela. Atzo agertzen zen prentsan adibide bat. 1) Autodeterminazioaren alde dagoena Jose Ramos-Horta da, Ekialdeko Timor-en askatasunaren alde egindakoagatik Bakearen Nobel saria jaso duena, eta Nueva York-en adierazi du Egunkariarentzat euskaldunok ere badugula, noski, bakoitza bere bereizgarriekin, bere herriak duen eskubide bera. 2) Bestalde, euskaldunoi dagozkigun askatasunen berme den Jaime Mayor Oreja jauna, asaldatuta agertzen da une honetan hau alderdi demokratikoei gaur eta hemen eskatzea euskal aktibistei eman dezaioken babes onena izango litzatekela, eta, aldiz, hemen gaur behar dena zera dela: "Polizia gehiago eta pazientzia handia". Francoren errezeta! Babestuak gaude, bada, eta erlojua eskuan duen gure kronometroak esango dio gure herriari noiz den bere ordua. Gonbaraketa ez dela berdintasuna, noski, baina urrun dagoen Timor-eko intxaur honen barruan bertan bizi da gertuago dugun gurearen fruitua.